MAILA EZBERDINEKO 10-14 URTE BITARTEKO FUTBOLARI GAZTEEN EZAUGARRI ANTROPOMETRIKOAK

Jaime Zubero[1], Iraia Bidaurrazaga-Letona[2], José Antonio Lekue[3], Susana Maria Gil[2]

1) Erizaintza II Saila, Donostiako Erizaintzarako Eskola (UPV/EHU, Donostia, Gipuzkoa)
2) Fisiologia Saila, Medikuntza eta Odontologia Fakultatea (UPV/EHU, Leioa, Bizkaia)
3) Athletic Club, Medikuntza Zerbitzua (Lezama, Bizkaia)

SARRERA ETA HELBURUAK

Azkenaldian futbolariak elitean adin txikitan hasten dira. Hori dela eta, klub profesionalentzat hauen ezaugarri antropometrikoak ezagutzea garrantzitsua bihurtu da[1]. Lanaren helburua eliteko futbol jokalari gazteen ezaugarri antropometrikoak beste populazio batzuekin alderatzea da.

METODOLOGIA

Lagina: 10 eta 14 urte bitarteko 528 mutil (1. Taula), lau taldetan banatuta:

- Populazio orokorraren taldea 4 eskoletako eta ikastoletako mutilak.
- Elitekoak ez ziren jokalarien taldea, talde lokaletako futbolariak (CD Galdakao eta CD Ugao).
- Sub-eliteko taldea, Athletic Club Fundazioko Ibaizabal-Nerbioi guneko futbolariak.
- Eliteko taldea Athletic Club-eko futbolariak.

Neurriak: Antropometria osoa burutu zen ISAK-en (International Society for the Advancement of Kineanthropometry) protokoloari jarraituz. Pisua, altuera, 6 gantz-tolestura, 4 zirkunferentzia eta 4 diametro neurtu ziren. Gantz portzentajea eta somatotipoa kalkulatu ziren.

Estatistika: Taldeak konparatzeko efektuaren tamaina (Cohen-en d) erabili zen[2].

Gurutzetako Ospitaleko Etika Batzordeak ikerketa lan hau onartu egin zuen.

1. Taula: Jokalarien kopurua taldea eta adinaren arabera.

Adina (urteak)	11	12	13	14	Guztira
Populazio orokorra	60	61	15	17	153
Talde lokalak	13	27	27	25	92
Sub-elite	44	42	30	22	138
Athletic Club (Elite)	25	53	37	30	145
Guztira	142	183	109	94	528

EMAITZAK

Tamainari dagokionez, alde batetik, Athletic Club-eko jokalariak beste talde guztiak baino adierazgarriki altuagoak ziren (1.irudia). Bestetik, Athletic Clubeko jokalariak adin gazteetan beste taldeak baino arinagoak izan arren, adin nagusiagotan beste taldeak baino pisutsuago bihurtu ziren (2. irudia).

Gantz tolesturen baturan eta gantz portzentajean ikusi daitekeen moduan (3. eta 4. irudiak), Athletic Club-eko jokalariak beste taldeek baino gantz gutxiago zuten. Aldiz, populazio orokorrak eta talde lokaletako jokalariek beste bi taldeek baino gantz gehiago izan zuten. Athletic Club-eko eta sub-eliteko taldeak endomorfia maila txikiagoak izan zituzten ia adin guztietan (5. irudia).





1. Irudia



2. Irudia



3. Irudia



4. Irudia



5. Irudia

ONDORIOAK

- Maila altuan jolasteko ezaugarriak ziren:
  - Tamaina handia izatea; are eta gehiago, nagusitu heinean jokalarien tamainak garrantzi handiagoa zuen.
  - Gantz-kantitate txikia izatea.
- Populazio orokorraren eta elitekoak ez zirenen gantz kantitatea antzekoa izateak iradokitzen du astero futbol entrenamendua burutzea ez omen dela nahikoa gantz-edukia txikitzeko; alegia, entrenamendu espezifikoagoa eta intentsuagoa beharrezkoa dela.

ERREFERENTZIAK

1. Vaeyens, R., Lenoir, M., Williams, A.M., & Philippaerts, R.M. (2008). Talent identification and development programmes in sport: current models and future directions. Sports Medicine, 38(9), 703-714.
2. Cohen, J. (Ed.). (1988). Statistical power analysis for the behavioral sciences (2nd ed.). Hillsdale, NJ: Lawrence Earlbaum Associates.

ESKER ONAK

- Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzaren IT700-13 laguntzaren bitartez partzialki finantzatua izan zen.
- IBL Eusko Jaurlaritzako beka jaso zuen ikerketa hau burutzeko (BFI2010-35).